



SSES 2023

Survey on **S**ocial and **E**motional Skills

(Trebetasun sozial eta emozionalei buruzko ikerketa)

Aplikazioa: martxoaren 6tik-31ra



SSES 2023

ZER DA SSES IKERKETA?

10 eta 15 urteko ikasleek garatutako trebetasun sozioemozionalak aztertzen dituen nazioarteko ikerketa da.

Trebetasun sozioemozionalaz gain, ikerketa honek familiako eta eskolako faktoreei eta testuinguruaren ezaugarriei buruzko informazioa biltzen du.

2018an egin zen lehen aldiz, eta 2023ko estatuko laginean (bigarren zikloa) 15 urteko ikasleek bakarrik parte hartuko dute.

SSESen edizio honetan mundu guztiko 200 herrialdek baino gehiagok hartuko dute parte.

ZEINTZUK DIRA IKERKETAREN ERAKUNDE ARDURADUNAK?

SSES ikerketa ELGAk (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) sustatzen du.

Ikerketa honako hauek koordinatzen dute:

- Estatuan: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko INEE (Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionala).
- EAEn: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ISEI-IVEI (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea).

SSES IKERKETAK...

Hezkuntza-arduradunentzat, irakasleentzat, ikastetxeetako zuzendarientzat eta familientzat garrantzitsuak diren aspektu asko aztertzen lagunduko du.

- Zer trebetasun sozioemozionalek dute lotura handiena ikasleen emaitza ekonomikoekin, osasunarekin, pertsonalekin eta gizarte-ongizatearekin?
- Ikaskuntzako zein familia-ingurunek (hazteko estiloak, etxean eskuragarri dauden baliabide didaktikoak) dute lotura handiena ikasleen garapen sozial eta emozionalarekin?
- Zer ikaskuntza-ingurune (edukiak, hezkuntza-metodologiak, curriculum edo praktika espezifikoak) daude lotuago ikasleen garapen sozial eta emozionalarekin?
- Zeintzuk dira hirietan, herrialdeetan eta kulturetan trebetasun sozialak eta emozionalak garatzea errazten edo oztopatzen duten faktoreak eta baldintzak?

SSES IKERKETA...

Trebetasun sozial eta emozionalen arloko marko teoriko ezagun batean oinarritzen da: **Bost Handien Edua** (Big Five, ingelesez).

Azterlanak hiru gaitasun biltzen ditu bost eremu nagusietako bakoitzerako:

- zereginen garapenean errendimendua,
- oreka emozionala,
- lankidetzeta,
- pentsamolde irekia,
- besteeiko inplikazioa.



Itemetarik ateratako bi indize gehigarri ere baditu, beste trebetasun batzuekin gainjartzen direnak.

NORTZUEK PARTE HARTZEN DUTE?

EAEko 3 ikastetxek parte hartuko dute Estatuko laginean.

Oraingo honetan EAEk ez du parte hartuko lagin propioarekin.

- Laginerako hautatutako ikastetxe bakoitzean gehienez 15 urteko 50 **ikaslek** parte hartuko dute, eta ausaz aukeratuko dira.
- DBHko 4. mailan eskolak ematen dituzten 10 **irakasle**.
- Ikastetxeko **zuzendaria**.

ZERTAN DATZA PROBA?

- Ikasleek erantzun beharko diete **proba sozioemozional** bati eta **testuinguru-galdetegi** bati (60-90 minutu), gailu digital baten bidez (ordenagailua, iPad, Chromebook).
- Ikastetxeko zuzendariak eta DBHko 4. mailako 10 irakaslek (gehienez) online erantzun beharko diote **testuinguru-galdetegi** bati (30 minutu inguru).
- 2E izango da aplikazioaz arduratuko den enpresa.

<https://www.educacionyfp.gob.es/inee/evaluaciones-internacionales/sses.html>